



IGANTZIKO UDALA

IGANTZIKO UDALERRIAN ABELTZAINZAKO TOKIKO AZPIEGITURAK HOBETZEKO OBRA KONTRATAZIOA

-A GUTUNAZALA IREKITZEA (DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA)-

- **TOKIA:** Igantziko Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2023-06-12
- **ORDUA:** 15:25
- **KONTRATUAREN XEDEA:** Abeltzaintzako ustategietarako nahiz araubide estentsiboan aprobetxatutako belardi eta larreetarako sarbidea ematen duten bide-azpiegiturak hobetzea.
- **PROZEDURA:** Irekia.

BERTARATUAK:

- **ALKATEA:** Juankar Unanua Navarro.
- **IDAZKARIA:** Nagore Madariaga Iriarte.

Igantzin, 2023ko ekainaren 12an, eguerdiko 15:25etan Igantziko Herriko Etxean egindako barne ekitaldian, kontratu organoa eta unitate kudeatzailea batu dira, 2023ko maiatzaren 25eko 80/2023 Alkate Ebazpen bidez onartutako baldintza agirian xedaturiko "Igantziko udalerrian abeltzaintzako tokiko azpiegiturak hobetzeko obra kontratua" lizitazioaren izapideekin jarraitzeko.

Jarraiki, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 51.1. eta 96. artikuluetan xedaturikoaren arabera, hemen adierazitako enpresek aurkezturiko A gutunazala ireki da:

ENPRESA IZENA:	IFK ZENBAKIA:
I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.	B71143911
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075
MENDEBERRIA ESKABAZIOAK, S.L.	B71034631
FRANCISCO JAVIER IRATZOKI TABERNA	****1074*

Enpresek aurkezturiko dokumentazio administratiboa zuzena dela egiaztatu da.

Halaber, MENDEBERRI ESKABAZIOAK, S.L. enpresak aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenari dagokionez (II. eranskina), ezin da aintzat hartu aurkeztutako dokumentazio guztia (I., II., III. eta IV. eranskinak) konfidentziala denik. Aurkeztutako dokumentazioak ez ditu betetzen Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 54. artikuluan xedatutako ezaugarriak, eta datu pertsonalekin lotutakoa baino ez da konfidentziala, hori guztia Datu



IGANTZIKO UDALA

Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Beraz, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 97. artikuluan xedaturikoa ikusirik eta plegu arautzailearen 14. klausulan xedaturikoaren arabera, B gutunazala (formulen bidez ebaluatzeko irizpideak) 2023ko ekainaren 16an, goizeko 8:30etan irekitzea zehazten da.

Aztergai gehiagorik gabe, bilkura 15:50etan amaitu da, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean. Horri buruzko akta hau idatzi da.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako akta hau sinatzen dugu.

Igantzin, 2023ko ekainaren 12an.

JARDUNeko ALKATEA,

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Juankar Unanua Navarro

Nagore Madariaga Iriarte